

**UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2014ko MARTXOAREN
10eko BILERAREN AKTA**

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria

Itziar Alkorta andrea,
lehendakariordea

Juan Andrés Legarreta jauna,
Agentziaren zuzendaria

José María Guibert jauna,
Deustuko Unibertsitateko
errektorea

Iosu Zabala jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea

Óscar Altuzarra jauna

Aratz Castro jauna

María Paz Espinosa andrea

Guy Haug jauna

Gregorio Monreal jauna

BERTARATUTAKO BESTE
BATZUK:

José Manuel Valle jauna

EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:

Iñaki Goirizelaia jauna, UPV/EHUko
errektorea

Carmen González Murua andrea

Esther Giménez-Salinas andrea

Ana Martínez andrea

Euskadiko Artxibo Historikoan (Maria
Diaz Haroko kalea, 3, 48013 Bilbo),
liburutegiko aretoan, 2014ko
martxoaren 10eko 16:00etan,
UNIBASQ Euskal Unibertsitate
Sistemaren Kalitate Agentziaren
Gobernu Kontseilua bildu da, Cristina
Uriarte buru duela. Alboan adierazitako
jaun-andreak bertaratu dira, honako
gai-zerrenda honekin:

1. 2014ko urtarrilaren 23ko
aurreko bilkuraren akta
irakurtzea, eta, hala badagokio,
onartzea.
2. Lehendakari andrearen
txostena.
3. Zuzendari jaunaren txostena.
4. Euskalitekiko hitzarmena.
5. Kontratu Programaren testuaren
aurrerapena.
6. 2013ko ekitaldiko kontuak
azaltzea.
 - 6.1. Urteko kontuak eta
kudeaketa-txostena
egitea.
 - 6.2. Aurrekontua betetzeari
eta legezketasunari
buruzko memoria egitea.
 - 6.3. Auditoretzaren behin-
behineko txostena.
7. III. Unibasq Sinposioa.
8. Galde-eskeak.

**1. PUNTUA. 2014-01-23ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea, eta, hala
badagokio, onartzea.**

Aurreko bilkuraren akta aho batez onartu da.

2. PUNTUA. Lehendakariaren txostena.

Lehendakariak Agentziaren jardueraren garapenerako garrantzitsuak diren zenbait punturen berri eman dio Kontseiluari.

3. PUNTUA. Zuzendari jaunaren txostena.

Zuzendariak Agentziaren jardueraren garapenerako garrantzitsuak diren zenbait punturen berri eman du.

4. PUNTUA. Euskalitekiko hitzarmena.

Aho batez onartu da Euskaliti proposatzea hitzarmenak hasiera batean hiru urteko iraupena izatea eta automatikoki luzatzea eta hitzarmenaren amaiera iragartzeko aukera izatea. Kontseiluak hitzarmenaren gainerako puntu guztiak onartu ditu.

5. PUNTUA. Kontratu Programaren testuaren aurrerapena.

Aho batez onartu da lantalde bat sortzea, Agentziaren ildo estrategikoak egiteko. Proposatzen da lantaldea osatuko dutenak honako hauek izatea: Agentziaren zuzendaria, Eusko Jaurlaritzaren Unibertsitateen zuzendaria, Aholku Batzordeko kide bat eta Gobernu Kontseiluaren idazkaria.

6. PUNTUA. 2013ko ekitaldiko kontuak azaltzea. 6.1. Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea. 6.2. Aurrekontua betetzeari eta legezketasunari buruzko memoria egitea. 6.3. Auditoretzaren behin-behineko txostena.

Aho batez onartu dira aurkeztutako honako dokumentu hauek: (1) 2013ko ekitaldiko Urteko Kontuak, (2) Kudeaketa Txostena eta (3) Aurrekontua betetzeari eta Legezketasunari buruzko Memoria.

7. PUNTUA. III. Unibasq Sinposioa

Kontseiluak aho batez onartu du Unibasq-en III. Sinposioa egitea eta Aholku Batzordeari Nazioartekotzea eta Kalitatea gaia proposatzea sinposioan lantzeko gai gisa.

8. PUNTUA. Galde-eskeak.

Cristina Uriarte andreak eskerrak eman dizkie kontseilariei bertaratzeagatik eta eskaini duten laguntzarengatik.